



HI(ZKI) BRI DOAK

Literatura mutanteak

MUTAZI^oAK KALTEGARRIAK IZAN DAITEZKE IZAKI^oNTZAT,
BAINA EZINBESTEK^oAK DIRA GURE EXISTENTZ^oARRAKO.

MUTAZI^oRIK GABE EZ LEG^oKKE ALDAKETARIK, ETA ALDAKETARIK
GABE EZ DUGU EB^oLUZIONATZEN.

HI(ZKI)BRID^oAK LITERATURAREN ETA AH^oZKOTASUNAREN ARTEKO
MUTAZI^oAK DIRA. LETRAK, SOINUAK, BERTS^oAK ETA IRUDI^oAK
ERALDATZEN DITUZTEN EKITALDI^oAK.

EMAITZA LITERATURA MUTANTEAK DIRA, ZENTZU ZABALENEAN.

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



DO
AN

**Urriak 8
Euskararen Etxean
19:30ean**

ORAINMENEAN

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa

Bertsolaritzan beti kontatu izan da gizeonezko bertsolarien historia. Hala ere, iritsi zaizkigun izen handi horien atzean arakatzu gero, hainbat eta hainbat plaza-andreren arrastoak agertzen dira. Horregatik, Txakur Gorria Sormen Kolektiboak ahalegina egin du bertsolaritzaren hastapenetatik gaur arteko historia hori zalantzan jartzeko eta bertsolaritzaren genealogia feminista posible bat berridazteko, ikusezin izandakoak ikusaraziz. Emakumez osatutako bertso-saio honetan, bertsolarien genealogia horren parte diren datuak eta gertaerak izango dituzte kantarako abiapuntu. Gainera, berridatutako historiaren mugari ezberdinetan oinarritutako irudiak egongo dira erakusgai.

DO
AN

**Urriak 22
Euskararen Etxean
19:30ean**

MUGA

Anfetamiña Xabier Montoiaren lehen liburuan oinarritutako eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratutako egitasmoa

Xabier Montoiaren *Anfetamiña* liburutik abiatzen da Muga. Poesia, rock musika eta ikus-entzunezkoak batzen ditu. Xabier Montoiaren lehen poema liburua izan zen Anfetamiña, eta Alberto Gonzalez musikariak (Aterkings edo 6nemen9) kantu bihurtu du, Iñigo Romera (Cancer Moon, El Inquilino Comunista), Iñigo Eguillor (Gringo, Trampas) eta Itziar Beristain musikariaren laguntzaz. J.A. Goñi Areta Juxe argazkilaria irudiekin jantziko dute saioa. David Bowiek ilea moztu zuen egunean hasten da historia...

DO
AN

**Azaroak 13
Euskararen Etxean
19:30ean**

HABI^oAK

Anariren lan homonimoan oinarritutako arte erakusketa kolektiboa. Anari taldeak *Habiak* diskoa joko du zuzenean.

Musika eta artea lotzen dituen ekitaldia da, zeina Anariren *Habiak* diskoaren inguruan ardatzen den: erakusketa kolektiboa izango da eta diskoan bildutako hamabi kantuen interpretazio plastikoak bilduko ditu – maiatzaren 30era arte izango da ikusgai-. Anari taldeak *Habiak* joko du zuzenean; denbora zeharkatuko duten soinuak. Booktegi, halaber, erakusketari buruzko katalogo-argitalpena plazaratuko du bere plataforma digitalean. Sarrera: gonbidapen bidez egingo da.

DO
AN

**Abenduak 10
Euskararen Etxean
19:30ean.**

BERTSO SAIO LITERARIO^oA

Mari Luz Estebanek kantuan jarriko ditu Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio

Idazleak pasarte literarioak irakurri ondoren, hari loturiko gaiak proposatuko dizkie. Hiru ahots elkarlanean. Erregistro guztiak lantzeko ahalbidea ematen du. Bertso-saio baten ohiko moldeak hautsi gabe, literaturaz gozatzeko aukera eskainiko da. Ahots mutazioak.

Euskararen Etxea

Agoitz Plaza 1 • 48015 Bilbo

Metroa: San Ignazio (Lekeitio irteera)

www.euskararenetxea.eus

* Streaming bidez ere hedatuko dira